

Fisiologia edo Medikuntzako Nobel saria, C hepatitisaren birusa aurkitu zutenei

Karolinska Institutuak C hepatitisaren aurkako borrokan esanguratsuak izan diren hiru ikertzaile saritu ditu aurten Medikuntzako Nobelaz: Harvey J. Alter, Michael Houghton eta Charles M. Rice. Birusa identifikatu zen haien lanari esker, eta, hala, milioika pertsonaren bizia salbatu dutela adierazi du epai-mahaiak. Izan ere, eskala handiko osasun-arazotzat jo dute C hepatitisaren; hiesa eta tuberkulosiaren mailakoa.

Hainbat hepatitis-mota daude: batzuk alkoholaren gehiegizko kontsumoak, gaixotasun autoimmuneek eta hainbat toxinek sortuak dira, baina, gehienak, birus baten infekzioak eragiten ditu. 1940ko hamarkadan bazekiten hepatitis infekzioso horietako batzuk ur edo elikagai kutsatuen bidez transmititzen zirela (A hepatitis), eta beste batzuk, ordea, odolaren bidez. Agente infekziosoak aurkitzea ezinbestekoa bihurtu zen. Lehenik, odol-transmisioko B hepatitisaren birusa identifikatu zen, baina horrek ez zuen argitu odol-transmisioko hepatitis gehien arrazoia. Azkenean, C hepatitisaren birusa identifikatzeak ahalbidetu zuen gainerako hepatitis kroniko haien eragilea aurkitzea eta botika eraginkorrak garatzea.

Hiru aurkikuntza, hiru mugarri

Hasieran, "ez A, ez B" deitu zioten gaixotasun misteriotsuari. Harvey J. Alter gaztea odol-transfusioa jasotzean hepatitis garatu zuten pazienteen kasua aztertzen ari zen garai hartan, B hepatitisaren birusak azaltzen ez zituen kasu horiek guztiak argitu nahian. Alterrek frogatu zuen gaixo horien odolak txinpantzei ere transmititzen ziela gaixotasuna, eta agente infekziosoak birus baten ezaugarriak zituela.

Hamarkada batez alferrik aritu ziren birusa aurkitu nahian. Orduan, Michael Houghton txinpantzeen odolatik birusaren sekuentzia genetikoa identifikatzen saiatu zen. Flavivirus familiako RNA-birus bat zela ikusi zuen, eta C hepatitisaren birusa deitu zion. Ordura arte erabili gabeko estrategia bat erabili zuen: pazienteen seruma erabili zuen birusaren proteinak kodetzen zituzten DNA-zati klonatuak identifikatzeko. Estrategia berria baliagarria suertatu zen.

Hirugarren mugarria Charles M. Rice-k lortu zuen, birusak, bere kabuz eta beste ezerean laguntzarik gabe, hepatitis eragin zezakeela frogatzea lortu baitzuen. Lorpen historikotzat jo ditu hirurak Karolinska Institutuak, orain sendagarria baita C hepatitis. ●



Harvey J. Alter
New York (AEB),
1935.



Michael Houghton
Erresuma Batua,
1949.



Charles M. Rice
Sacramento (AEB),
1952.